

ATZERRIKO IMMIGRAZIOAREN BIZITOKI-SEGREGAZIOA EAeko HIRU HIRIBURUETAN

2006ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera, EAEn bizi diren atzerritarren %49,26a hiru hiriburuetan bizi da, eta 14. begiradan aztertutako moduan, %71,5ak hiru herrialdeetako hiriburuak kokatuta dauden eskualdeetan du bizilekua. Begirada ale berri honetan, hiru hiriburuetako biztanleria atzerritarren bizitoki-banaketa aztertzen da bere bizitoki-segregazio eta segregazio-sozial mailak ezagutzeko helburuarekin. Horretarako, ezantzekotasun-indize klasikoek baliatuko gara.

EAeko hiriburuetako biztanleria atzerritarra

2006ko Erroldaren arabera, EAEn bizi diren atzerritar guztien %71,5ak hiru herrialdeetako hiriburuak kokatuta dauden eskualdeetan du bizilekua, eta ia erdiak (%49,26ak) hiru hiriburuetan bertan, hau da, Bilbon, Gasteizen eta Donostian.

Hiru hiriburuetan bizi direnak batuta, 42.000 pertsona atzerritar baino gehixeagoko jende-multzoa osatzen dute, hau da, biztanleria hiritarren %5,5a. Talderik ugariena Bilbon bizi bada ere, Gasteizen dute biztanle atzerritarrek biztanleria osoarekiko pisu erlatiborik handiena, bertan erroldatutako arteko %6,26a osatzen baitute. Donostian bizi diren atzerritarrek osatzen dute talderik urriena, bai kopuru absolututan eta baita pisu erlatiboari dagokionean ere, hiriko biztanleria osoaren %4,5a, hain zuzen.

Azken urteotan, etengabe egin du gora biztanleria atzerritarrek hiru hiriburuetan, eta horren ondorioa da gaur egungo egoera. Orokorrean hirietako biztanleriak bere horretan iraun edo behera egin badu (Bilbon), bere baitako atzerritarren laginak gora egin du etengabe, lehen adierazitako ehunekoetara iritsi arte (2. taula).

Hala eta guztiz ere, konparaketa eginez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan etorkin atzerritarrek duten presentzia Espainiako guztizko tasa (%8,8koa) baino nabarmen txikiagoa da. Hiriburu handietan, esate baterako, honoko ehunekoak osatzen zituzten biztanle atzerritarrek 2006an: %14,1a Madrilen, %15,3a Bartzelonan eta %12,1a Valentzian. EAeko hiriburuen neurri antzerakoagoa duten beste hiriek ere atzerritarren askoz tasa handiagoak dituzte, hala nola, Castellók (%17,1), Alacantek (%12,1) eta baita Iruñeak berak ere (%10,5erainokoa).

2. taula. EAeko hiriburuetako biztanleria atzerritarren bilakaera, 1998-2006

		1998	2000	2002	2004	2006
Bilbo	Guztira	358.468	354.271	353.950	352.317	354.145
	Atzerritarrek	2.701	3.953	8.820	13.049	19.611
	%a	0,75	1,12	2,49	3,70	5,54
Donostia	Guztira	170.878	180.277	181.700	182.644	183.308
	Atzerritarrek	1.580	2.465	4.035	6.356	8.305
	%a	0,92	1,37	2,22	3,48	4,53
Gasteiz	Guztira	216.527	217.358	221.270	223.702	227.568
	Atzerritarrek	2.139	3.296	6.987	10.455	14.242
	%a	0,99	1,52	3,16	4,67	6,26

Iturria: EInko datuak.

1. taula. Biztanleria atzerritarra EAeko hiriburuetan, 2006

	Biztanleria	Atzerritarrek	Atzerritarren %a	Atzerritarren Banaketa (%a)
Bilbo	354.145	19.611	5,54	22,92
Donostia	183.308	8.305	4,53	9,70
Gasteiz	227.568	14.242	6,26	16,64
Hiriburuak Guztira	765.021	42.158	5,51	49,26
EAE Guztira	2.133.684	85.542	4,00	100

Iturria: EInko datuak.

Dena dela, atzerriko etorkinen fenomeno hiritako gertakari bat da, nagusiki, EAEn. Horren ondorioz, horri buruz herritarrek duten pertzepzioa zera da, hirietako kontu bat dela. Era berean, bere ondorioetako asko ere hirietako gizarte-egiturari dagozkion kontuak dira, batez ere. Zera da hirietako biztanleria atzerritarren gainera interesatzen zaigun oinarritzko gai aipagarrienetako bat: gainerako biztanleekiko zer segregazio-maila duten. Segregazioaren ideia oso zabala bada ere, hirietako zenbait biztanleria-taldeak duen segregazioaren dimentsiorik oinarritzkoen bati buruz jardungo gara hemen, bizilekuari dagokion segregazioaz.

EAeko hiriburuetako bizileku-segregazioaren neurketa

Bizileku-segregazioak zera adierazten du, atzerritarrek gainerako biztanle hiritarrekiko zenbateraino *bananduta* bizi diren. Gertakari horren seinale nabarmena honoko ideia hau da: atzerritarrek biztanleriaren zati nabari-nabaria osatzen dutela hiriko zenbait gunetan, migrazio-fluxuek berez dakarten aniztasun-irudia ghettoak osatzeko joerarekin ordezkatzu. Horrexegatik du garrantzi berezia gertakariaren neurri zehatzak.

Badira bizileku-segregazioari dagozkion oinarritzko neurri kuantitatibo batzuk, gertakariak dituen hainbat dimentsio modu osagarrian islatzen dutenak. Denetan erabiliena oinarritzko desberdintasun-neurri bat da, Ezantzekotasun-indizea hain zuzen. Indize honek zera neurtzen du: gutxiengoan den talde batek gehiengoan den taldearekiko daukan desberdintasuna, bizitoki-banaketaari dagokionean. 0 eta 1 artekoa izaten da. 0 neurriak bizileku-segregaziorik eza adierazten du, eta 1 neurriak izan daitekeen bizileku-segregaziorik handiena (gutxiengoan den taldeak ez duela bizitoki-eremurik batere partekatzen gehiengoan den taldearekin).

Gasteizko eta Donostiako egoera hobe izateaz gain, antzerakoa da bietan, banaketaren desberdintasunari dagokionean (ezantzekotasun-indizea). Hala ere, isolamendurako dezentez arrisku handiagoa du Gasteizko atzeritarren giza taldeak.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, inpresio orokor hori aldatu egiten da atzeritar-talde (nazionalitate-jatorri bereko giza talde) bakoitzaren egoera zehazki aztertuz gero. Izan ere, indize orokorrak oso sentikorrek dira taldeen tamainarekiko, horiek erreferentziatzko lurralde-unitateekiko (kasu honetan, auzoekiko) erlazioan aztertzen baitira. Aurretiaz behintzat, hiru hiriburuetan gutxiengoan dauden giza taldeak txikiak izanik, eta tamaina ertaineko unitateetan neurtzen direnez gero, txikiak dira gune berean kontzentratzeko dauden aukerak. Edonola ere, etorkin atzeritarrek hiri bakoitzean bizitokia finkatzeko dituzten jarraibideak xehetasunez aztertu behar dira, adierazle horiek ulertu ahal izateko, eta jarraibide horiek nazionalitate bereko multzoka alderatu: garrantzia du zenbat pilatzen diren bizitokiari dagokionean, baina garrantzitsua da non pilatzen diren ere. Ildo horretan, *kontzentratzea* aipatzen dugunean hemen, auzo batzuetan beste auzo batzuekiko lehenetsunez elkartzea adierazi nahi dugu (auzo bakoitzean dagoen atzeritarren ehuneko, atzeritarren gutzitiko kopuruarekiko).

Bilbo. Biztanleria atzeritarren banaketa

Udalerriko biztanleriarekiko %5,5eko presentziarekin, Bilbon bizi diren 19.611 atzeritarrek, lehenago esan dugun bezala, bizitoki-segregazioaren gutzitoko tasa apal samarra ageri dute (0,184ko ezantzekotasun-indizea).

Atzeritarrek Bilbon bizitoki-banaketarako daukaten jarraibide zehatzean bilatu behar da tasa apal horren azalpena. Hasiera batean, atzeritar egoiliarrek Bilboko auzo guztietan (44) daudela esan behar da, eta hirian zehar duten banaketa biztanleria osoak unitate horietan duen banaketarekiko proportzionala dela, neurri handi batean. Ikus daitekeenez (1. mapa), auzo gutxi batzuek baino ez dituzte hartzen hiriko biztanleria atzeritarren ehuneko aipagarriak (auzo batek bere baitan atzeritarren %3 baino gehiago pilatuz gero, gainditu egiten du hiriko banaketa uniformea litzatekeen neurria), eta auzorik jendetsuenak dira horietan.

Zentzu horretan, salbuespen bakar batek eragiten du ezantzekotasun-indizea askoz ere apalagoa ez izatea: San Frantzisko auzoak. 7.525 biztanle ditu auzo horrek (Bilboko biztanleriaren %2,1a) eta atzeritarren %9,6a pilatzen du; izan ere, San Frantziskoko egoiliarren %25a atzeritarrek baitira.

San Frantzisko auzoak eta bere mugakide diren auzoek osatzen duten eremu geografikoak (ia Alde Zaharra-5. barruti osoa, San Adrian izan ezik) bere gain hartzen du biztanleria atzeritarren banaketan dagoen desorekaren zatirik handiena: atzeritarren %26,6a barruti horretan bizi da, hau da, bertako biztanleen %9a atzeritarra da (oro har hartuta, pilaketa ez da hain deigarria; izan ere, Bilboko barrutirik jendetsuena da eta).

Bigarren tokian, Errekaldeberri-Ametzola-Iralabarri multzoak (ia 40.000 biztanle) biztanleria atzeritarren %14,4a biltzen du, bere baitako biztanleen %21,3a egoiliar atzeritarra izanik.


Zera nabarmendu behar da bestalde, ezantzekotasun-indizea, atzeritarrek banaketa espazialari dagokionean bertakoekiko duten desberdintasunaren neurri gisara, aurreko horiek bezalako *kontzentrazio erlatibo* mota jakin batzuekin elikatzen dela. Bilboren kasuan, zera nabarmendu behar da: balio absolututan ikusita, auzo batzuetan biztanleria atzeritarren kopuru jakin bat egotea galdu egiten dela datuok multzo osora ekartzerakoan, auzo *handiak* eta jendetsuak baitira: Abandok eta Indautxuk ere biztanleria atzeritarren %13a daukate, baina horiek egoiliarren %5a baino ez dute osatzen, eta antzerako egoera da Santutxukoa ere.

Donostia. Biztanleria atzeritarren banaketa

19 auzoak oinarritzko unitateetat hartuz, biztanle atzeritarren multzoari dagokion bizitoki-segregazioaren gutzitoko indizea (ezantzekotasun-indizea) oso apala da Donostian, 0,149koa, eta berdian doitutako isolamendu-indizea ere, 0,005ekoa baita (atzeritar batek beste atzeritar batekin auzoa partekatzeko duen probabilitatea %0,5ekoa da). Honen arrazoia zera da, bertako biztanleen banaketaren eta atzeritarren arteko korrelazioa Bilboko baino are handiagoa dela; hau da, atzeritarrek gutzitoko biztanleriarekiko duten tamainarekiko oso modu proportzionalan banatzen dira, hiriko bizitoki-unitateetan zehar.

Horrela, esan dezakegu hiru auzok bakarrik eragiten dutela biztanleria atzeritarren segregazio-mailaren bat: ikusten denez (2. mapa), Erdialdeko auzoak da gehien eragiten duena, egoiliar atzeritarren %11,6a biltzen baitu, eta bigarren mailan, Amara Berri (%17a) eta Gros (%14a), biztanleria atzeritarren beste herena hartzen baitute. Baina azken horiek hiriko auzorik jendetsuenak ere badira, eta beraz kontzentrazio horren eragin bereizgarria ez da hain ikusgarria. Gainera, horrek atzeritarrek bertakoekiko duten esposizioa oso handia ez izaten ere laguntzen du (doitutako isolamendu-indizea oso txikia: %0,5ekoa).

2. mapa. Donostiako biztanleria atzeritarren auzokako banaketa (%)



Iturria: EInko datuak.

Gasteiz. Biztanleria atzerritarren banaketa

Atzerritarren multzoak biztanleria oso-arekiko duen pisua beste bi hiriburuetakoa baino handiagoa bada ere, Gasteizko atzerritarren multzoari dagokion bizitoki-segregazioaren guztizko tasa ere nahiko apala da (0,147ko ezantzekotasun-indizea): atzerritarren %15ak auzoa aldatuko balu, beren auzokako banaketa gainerako biztanleriarekiko berdina izatea lortuko litzateke. Gainera, bi atzerritarrek bizitoki-azuo berbera izateko duten probabilitatea %1eko da; beraz, hauek bertako biztanleekiko (nazionalitate-agiri espainiarra dutenekiko) daukaten espazioa oso handia da.


Ikus daitekeenez (3. mapa), hiriaren bizitoki-egiturak berak azaltzen du zergatik ez den handiagoa atzerritarren guztizko segregazio-indizea: 28 auzoen arteko 11k soilik daukate banaketa uniformean legokiokoen ehuneko baino handiagokoa; gainera, horietatik 6etan baino ez dago atzerritarrentzako nolabaiteko *bizitoki-lehentasuna* (%5a baino gehiago, auzo bakarrean). Kontzentrazio handia duen auzo gisara, Alde Zaharra nabarmentzen da, hiriko biztanleria atzerritarren %10,4a hartzen baitu; izan ere, auzoko biztanleriaren %15a egoiliar atzerritarrek osatzen dute. Lehentasuneko bizitoki-area dira, eta nolabaiteko kontzentrazioa ere badutenak, mugakide diren *erdialdeko* auzoak ere (Koroatze auzoak %8a eta Pilar auzoak %6a). Bestalde, kanpoalde tradizionaleneko zenbait alderditan ere banaketa gorabeheratsua gertatzen da (Sansomendin eta Zaramagan), eta baita kanpoalde berriagoan ere (Arriaga-Lakua). Baina auzo horiek hiriko handienetakoak direnez gero, atzerritarren nola-halako kontzentrazioak (multzo osoaren %20a) ez dio eragiten ezantzekotasun-indizeari, kontzentrazio horrek biztanle-kopuru txikiagoa duten erdialdeko guneetan egiten duen bezainbat. Azken hauetan,

4. taula. Bilboko nazionalitate-multzo atzerritar nagusien bizitegi-segregazioari buruzko adierazleak, 2006

BILBO (44 AUZO)	Kopuruak	Biztanleriaren %a	Atzerritarren %a	Ezantzekotasun indizea	Doitutako Isolamendu Indizea
Biztanleak guztira	354.145	100			
Atzerritarrak guztira	19.611	5,538	100	0,184	0,0223
Kolonbia	3.795	1,072	19,351	0,209	0,0026
Bolivia	2.354	0,665	12,003	0,300	0,0055
Ekuador	2.025	0,572	10,326	0,253	0,0032
Errumania	1.197	0,338	6,104	0,220	0,0011
Maroko	1.183	0,334	6,032	0,389	0,0084
Txina	956	0,270	4,875	0,442	0,0044
Brasil	942	0,266	4,803	0,217	0,0009
Argentina	524	0,148	2,672	0,221	0,0006
Portugal	433	0,122	2,208	0,314	0,0024
Venezuela	364	0,103	1,856	0,259	0,0007
Senegal	362	0,102	1,846	0,735	0,0175
Paraguai	347	0,098	1,769	0,341	0,0006
Gainerakoak	5.129	1,448	26,154	0,196	0,0059

Iturria: EInko datuak.

3. mapa. Gasteizko biztanleria atzerritarren auzokako banaketa (%)



Iturria: EInko datuak.

nabariagoa da gainerako biztanleen banaketaren eta atzerritarren artean dagoen desoreka.


Bilboko atzerritarren nazionalitate-multzo nagusiak eta horiek bizitoki-segregazioarako dituzten jarraibideak

4. taulan ageri denaren arabera, nazionalitate-multzo nagusiek Bilbon bizi diren atzerritarren %74a biltzen dute. Nabarienez, nazionalitate-multzo ugariak latinamerikarrak dira (biztanleria atzerritarren %53a guztira), baina beste zenbait kontinentetako immigrazioaren nazionalitate-multzo adierazgarrienak ere ageri dira, hala nola, Afrikakoak (Maroko eta Senegal), Asiakoak (Txina) eta Europakoak (Errumania eta Portugal).

Orokorrean, nazionalitate-multzoetako segregazio-indize ia guztiak (ezantzekotasuna) balio orokorrak baino handiagoak direla nabari dezakegu, nahiz eta oso handiak ez diren balioen artean dabilzan, 0,20 eta 0,40 artean hain zuzen. Interpretaziorako baremo zorrotzik ez dagoen arren (neurrien unitateen arabera da), zenbait azterketak segregazio-egoera garrantzitsutzat jotzen du 0,60tik gorako ezantzekotasun-indizea duen zenbait talderen egoera.

Modu bereizgarrian, segregazio-indize handienak Marokori (0,389), Txinari (0,442) eta batez ere Senegali (0,735) dagozkie. Azken hau da bizitoki-segregazioko egoera nabarmena argi erakusten duen kasu bakarra, eta gainera, doitutako isolamendu-indize handiena izateak berretsi egiten du irakurketa hori. Senegaldarren kasua ereduagarria da, inondik ere, haien artekoen %60a auzo berean bizi baita (San Frantziskon), eta ez da hain auzo handia. Hauxe

4. mapa. Bilbo. Ezantzekotasun-indizerik handiena (0,735): Senegaleko biztanleriaren auzokako banaketa (%tan)




Iturria: EInko datuak.

da indizeek argi erakusten duten muturreko kontzentrazio-kasua, nahiz eta giza talde txiki batez mintzo garen (362 pertsona, atzerri-tarren %1,8a eta hiriko biztanleriaren %0,09a).

Jatorriz marokoarra den biztanleriari (%21a San Frantziskon bizi da) eta Txinakoari (%32a Ametzolan eta Iralabarrin bizi da) dagozkion kasuak ere lehenetsitako hiriko auzo jakinek duten kontzentrazioaren erakusle dira, baina neurri txikiagoan.

Beste muturrean, honoko hauek dira segregazio-indizerik txikiak dituzten nazionalitate-multzoak: Kolonbia (komunitaterik ugariena), Brasil, Argentina, Errumania eta Ekuador. 0,25aren azpiko indizeak dituzte ia guztiak. Ia kasu hauetan guztietan, zera gertatzen da: bizi-tokirako hiriko zenbait auzo zertxobait lehenetsi arren, auzo horiek jendetsuenak izaten direla, eta giza talde horiek duten presentzia erlatibo handiagoa galdu egiten dela guztizko biztanleriaren datuetan. Edonola ere, pilotzeko joera isolamendu-indizeek berretsi egin dezakete. Horien arabera, aurrekoen artean potentzialki segregaziorik handiena Kolonbiako eta Ekuadorreko atzerriarrek daukate.

5. mapa. Bilbo. Ezantzekotasun-indizerik txikiena (0,209): Kolonbiako biztanleriaren auzokako banaketa (%tan)



Iturria: EInko datuak.

5. taula. Donostiako nazionalitate-multzo atzerritar nagusien bizitegi-segregazioari buruzko adierazleak, 2006

DONOSTIA (18 AUZO)	Kopuruak	Biztanleriaren %a	Atzerritarren %a	Ezantzekotasun Indizea	Doitutako Isolamendu Indizea
Biztanleak guztira	183.308	100			
Atzerritarrak guztira	8.305	4,531	100	0,149	0,0052
Ekuador	1.237	0,675	14,895	0,275	0,0025
Kolonia	783	0,427	9,428	0,246	0,0012
Argentina	480	0,262	5,780	0,260	0,0026
Portugal	464	0,253	5,587	0,367	0,0023
Frantzia	393	0,214	4,732	0,263	0,0008
Britainia Handia	370	0,202	4,455	0,295	0,0012
Maroko	308	0,168	3,709	0,333	0,0014
Italia	299	0,163	3,600	0,238	0,0005
Errumania	275	0,150	3,311	0,282	0,0007
Brasil	243	0,133	2,926	0,201	0,0003
Ukrania	241	0,131	2,902	0,298	0,0007
Gainerakoak	3.212	1,752	38,675	0,154	0,0023


Iturria: EINKO datuak.

Donostiako atzerritarren nazionalitate-multzo nagusiak eta horiek bizitoki-segregaziorako dituzten jarraibideak

Donostian erroldatuta dauden biztanle atzerritarrak 8.305 dira, hau da, egoiliarren %4,5a osatzen dute. Jatorrizko nazionalitate-multzoen aniztasuna handia da oso, nahiz eta hamaika nazionalitate-multzo nagusiek (5. taula) atzerritarren guztizko multzoaren %61a biltzen duten. Horien artean, latinamerikarrak nabarmen-tzen dira hemen ere, eta ondoren, Europako Batasunaren baitako herritarrak. Azken kontu hau Donostiako immigrazio atzerritarren ezaugarri bereizgarri nabarmena da. Marokoarrak 7. tokian daude, bolumenari dagokionean.

Ikusten dugunez, ezantzekotasun-indizek gehienek balio apalak dituzte eta nahiko antzekoak gainera, 0,20 eta 0,30 artekoak. Segregazio gutxieneko biztanleria brasildarra litzateke (0,201) eta, alderaketa eginez, segregazio handienekoak jatorri portugaldarreko biztanleria (0,367) eta marokoarrena (0,333). Ezberdintasunik handie-


6. mapa. Donostia. Ezantzekotasun-indizek handiena (0,367): Portugaleko biztanleriaren auzokako banaketa (%tan)



Iturria: EINKO datuak.

na kontzentrazio erlatiboaren mailan dago eta baita kokapenerako jarraibide zehatzetan ere: brasildarrek osatutako giza talde txikiak hiriko erdialdeko auzo jendetsuetan pilatzeko joera dute (Grosen, Amara Berrin eta Erdialdean); bolumenari dagokionez 4. nazionalitate-multzoa diren portugaldarrek aldiz, etorkinen asimilazioko kanpoaldeko auzo tipiko batean (Altzan) agertzen dute kontuan hartzeko moduko kontzentrazio-maila erlatiboa (%31koa).

7. mapa. Donostia. Ezantzekotasun-indizek txikiena (0,201): Brasileko biztanleriaren auzokako banaketa (%tan)



Iturria: EINKO datuak.

Marokoarrek hirian presentzia txikia duen nazionalitate-multzoa osatzen badute ere, segregazio-maila handi samarra erakusten dute, normalean etorkin-izaera duen auzo batean edo bitan kokatzeko joera dutenez gero. Kasu honetan, Ulian eta Altzan pilatu dira. Kontzentrazio-modu horiek honetan egiten dute bat, biak ere EAEko atzerriko immigrazioaren prozesuaren baitan zaharretakoak diren bi nazionalitate-multzo direla.

6. taula. Gasteizko nazionalitate-multzo atzerritar nagusien bizitegi-segregazioari buruzko adierazleak, 2006

GASTEIZ (28 AUZO)	Kopuruak	Biztanleriaren %a	Atzerritarren %a	Ezantzekotasun indizea	Doitutako Isolamendu Indizea
Biztanleak guztira	227.568	100			
Atzerritarrak guztira	14.242	6,258	100	0,147	0,0104
Kolonia	2.184	0,960	15,335	0,161	0,0015
Maroko	1.958	0,860	13,748	0,333	0,0132
Ekuador	1.053	0,463	7,394	0,221	0,0013
Aljeria	1.029	0,452	7,225	0,257	0,0029
Portugal	1.017	0,447	7,141	0,244	0,0015
Brasil	734	0,323	5,154	0,174	0,0007
Errumania	643	0,283	4,515	0,234	0,0010
Txina	478	0,210	3,356	0,392	0,0021
Argentina	339	0,149	2,380	0,261	0,0006
Paraguai	313	0,138	2,198	0,231	0,0005
Pakistan	302	0,133	2,120	0,422	0,0015
Bolivia	278	0,122	1,952	0,254	0,0006
Gainerakoak	3.914	1,72	27,482	0,135	0,0016

Iturria: EInko datuak.


Interesgarria da beste zera hau ere azpimarratzea: nazionalitate latinarmerikar nagusienek (Ekuadorrek, Kolonbiak eta Argentinak), azkenaldian finkatu direnak, ez dutela ezantzekotasun-indize garrantzikorik ageri. Hala ere, zenbait kasutan badago nolabaiteko segregazio-modu bat, elkartzeko duten joera dela eta, baina hori bizitegi-auzo jendetsuetan gertatzen da. Joera hau nabarmenago ikusten da doitutako isolamendu-indizearen bidez; izan ere, oso balio apalak badira ere, hiriko baliorik handienak Argentina eta Ekuadorreko biztanleek baitituzte.

Egia esan, Donostian atzemandako mailen eta bizitegi-segregazioarako jarraibideen ezaugarri garrantzitsu bat zera da, nazionalitate-multzo bakoitzaren kasua ezberdina dela. 10 nazionalitate-multzo nagusien artean Batasun Europarreko (E15) 3 giza multzo egoteak, eta horiek segregazio-maila ezberdinak izateak, esate baterako, agerian uzten du elkartzeko moduari dagokionean duten izaera berezia: biz-

tanle britainiarrek, kopuruz 5. nazionalitate-multzoa osatzen dutenak (Donostiako atzerritarren %4,4a), bizitokiaren segregazio-indizea errumaniarrek edo ukrainarrek dutenaren baliokidea dute, eta marokoarrena eta portugaldarrena bakarrik da haiena baino handiagoa. Izan ere, britainiarrek ere bizitokia auzo berean pilotzeko joera dute, baina hiriko erdiguneko auzoetan (Erdigunean, Grosen eta Alde Zaharrean). Doitutako isolamendu-indizeak (aurrekoena baino apalagoa denak) soilik zuzentzen du *inpresio* hori, argi utziz benetan segregazio-maila handiagoa duten giza multzoekiko daukaten aldea.

Ekialdeko Europako jatorria duten komunitate txikiak (Errumania eta Ukraina) esposizio-maila handiko talde gisara ageri dira (isolamendu gutxiokoa), baina alderatuz gero segregazio-maila handiagoa dute (0,29ko ezantzekotasun-indizea). Alde Zaharrean duten presentziak eragiten du hori, nagusiki, biztanleriaren kopuruari dagokionez auzorik txikienetakoa baita, eta bertan *nabariago* ageri baitira.

8. mapa. Gasteiz. Ezantzekotasun-indizearik handiena (0,422): Pakistaneko biztanleriaren auzokako banaketa (%tan)



Iturria: EInko datuak.

Gasteizko atzerritarren nazionalitate-multzo nagusiak eta horiek bizitoki-segregazioarako dituzten jarraibideak

Gasteiz da bere biztanleriarekiko atzerritarren (14.242) presentzia erlatiborik handiena duen hiriburua, %6,26arekin. Atzerritarren taldea nazionalitate-multzoka nola banatzen den aztertzerakoan (6. taula), hain ezohikoa ez den banaketa ikus dezakegu: bi talde nagusi soilik nabarmentzen dira, Kolonia eta Maroko, eta egoiliar atzerritarren gutxienez %1a osatzen duten 12 nazionalitate-multzo daude guztira.

Hiriko atzerritarren erdia 5 nazionalitate-multzo handienetako partaide dela ikusten dugu, eta horiek, EAEko atzerriko immigrazioari dagokionez, etorkin-multzo berrienak (Kolonbia eta Ekuador) eta tradizionalenak (Maroko, Aljeria eta Portugal) direla. EAE osoa kontuan hartuta immigrazio-iturri nagusia kolonbiarrek osatzen badute ere, eta beste hiriburuak banaka hartuta ere bai ia, azpimarratzekoa da Gasteizen bakarrik dutela etorkin Marokoarrek garrantzia horretako pisu erlatiboa: izan ere, atzerritar egoiliarren ia %14a osatzen baitute.

Nazionalitate-multzo zehatzak aztertuta ordea, *inpresio* hori dezente aldatzen da. Segregazio-indize zehatz guztiak izan arren EAEko guztiz-

koarenak baino handiagoak, badira batzuk nolabaiteko garrantzia berezia daukatenak. Labur esanda, honoko hauek dira segregazio handiena duten nazionalitate-multzoak: Pakistan (0,422), Txina (0,392) eta Maroko (0,333); segregazio txikiena dutenak berri, Kolonbia (0,161) eta Brasil (0;174).


Pakistandarren multzoak irudikatzen du oso multzo txikien egoera-prototipoa (300 pertsona pasatxori buruz ari gara). Hiriko bi gunetan oso kontzentratuta daude: Sansomendi (tradiziozko kanpoalde immigrantean) bizi da %30a eta beste %14a Zabalgunen, hiri-erdiguneko bizitegian. Azken auzo honetan, %4,5a baino ez dira atzerritarrak.

Herritar txinatarrek osatutako nazionalitate-multzoak ere elkartuta bizitzeko joera du: dauden tokian daudela, pilatuta egon ohi dira, era batera edo bestera, eta bada txinatar bakar bat ere bizi ez den hiriko zenbait gune. Multzo honek Gasteizen duen bolumena txikia izanik ere, duen ezantzekotasun-indizeak argi adierazten du auzo batzuetan, eta batez ere erdigune inguruan, duen kontzentrazio-indize erlatibo handia (%9 Alde Zaharrean, %22,6 Koroatzean, %9 Judizmendi eta %8 Txagorritxun).

Marokoarren kasua da auzo bakarrean kontzentratzen den multzoaren kasurik muturrekoena: gainerakoa hiri osoan zehar banatuta badago ere, %27a Alde Zaharrean bizi da. Horregatik, doitutako isolamendu-indizea nazionalitate-multzo guztien arteko handiena da (%1,3koa).

Beste muturrean biztanleria kolonbiarra dago (0,161eko ezantzekotasun-indizea du), hirian dagoen atzerritarren multzorik handiena. Auzoetan zehar oso banatua dagoenez, bertako biztanleriarekiko ezantzekotasun-indizea oso-oso txikia da, nahiz eta doitutako isola-

9. mapa. Gasteiz. Ezantzekotasun-indizearik txikiena (0,161): Kolonbiako biztanleriaren auzokako banaketa (%tan)



Iturria: EInko datuak.

mentu-indizea ertaina izan. Beste behin ere, oso auzo jendetsuetan bizitzeko joera dago egoera horren atzean, hau da, beste hainbat etorkin ere bizi diren tokian. Antzerako kasua da Ekuadorreko jatorria duen biztanleriarena ere.



Abuztuaren 1etik aurrera, Ikuspegik, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, **web-orri berria** eskainiko du zerbitzu eta eduki berriztatuekin.

Betiko tokian aurkituko gaituzu:

www.ikuspegi.org



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: www.ikuspegi.org

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:
 - **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.
 - **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:

Tlf.: 94 601 82 75
 Fax: 94 402 35 40
 e-mail: info@ikuspegi.org

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzakezu:
 Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia